

IZENA EMATEKO EPEA
BEKADUNAK

2015eko irailaren 18ra arte

IZENA EMATEKO EPEA
ENPRESAK

2015eko irailaren 21etik
urriaren 22ra

1.500 €-ko
laguntza
bekadunak
kontratatzeko
dituzten
enprezentzat*

II deialdia

BECAS ENPRESETAN PRAKTIKAK EGITEKO BEKAK

EUSKADIKO GAZTE
ENPLEGURAKO 2015 PLANA
Obra Social "la Caixa"

 **Deusto**
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto

 **BFA
DFB** Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

 **CEBEK**
Confederación Bizkaiko
Empresarial de Enpresario
Bizkaia Konfederazioa



Obra Social "la Caixa"

“la Caixa”-ko Gizarte Ekintzak, Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak (CEBEK) eta Deustuko Unibertsitateak, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Sailaren laguntzaz,

bekatarako deia egin dute, CEBEKeo kideak diren lurraldeko enpresetan prestakuntzarako praktikak egiteko asmoz.



IKASGELATIK LANERA

1

Helburua

2013-2014ko ikasturtean edo 2014-2015ko ikasturtean **Deustuko Unibertsitatean** egindako graduatan titulaturakoei enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzea, prestakuntzan bereganatutako jakintzak euren gaikuntza profesionaleko zereginetan garatu ditzaten. Beketako onuradunek **prestakuntza praktikoa** egingo dutenez, enpresaren funtzionamenduko faktore nabarierik buruzko ikuspegia lortu ahal izango dute.

Hartara, lortutako prestakuntzaren eta enpresek benetan eskatutakoaren artean dagoen distantzia estali ahal izango da, pertsona horiek laneratzeko orduan.

Euskarri juridikoa

2

Beketako onuradunei Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzeko mekanismoak ezarriko zaizkie, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Horretarako, **CEBEKek** enpresari moduan egingo ditu programari dagozkion Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrerako kotizazioak.

Praktikaren bidez enpresarekin inolako lan-harremanik sortuko ez denez, bekarako hitzarmenaren sinaduraren bitartez egituratuko da.

Enpresentzako betekizunak

3

Enpresak **CEBEKeko kideak** edo bertako elkarte edo federazioren bateko kideak izan beharko dira.

Enpresan garatu beharreko praktikaren edukia interesgarria izan beharko da bekadunaren prestakuntzari begira, eta bere **profil profesionala** eskabidean zehaztutako jardueri aurre egiteko bestekoa izango da.

Enpresek tutore bana izendatuko dute, eta praktika behar bezala garatzen dela bermatu beharko dute. Enpresa parte-hartzaileek hitzarmena sinatuko dute CEBEKekin, eta, besteak beste, bekarako egindako ekarpen ekonomikoa zein den agertu beharko da, hau da, bekadunentzako 3.000na euro gordineko zenbatekoa lortu arte **“la Caixa”-ko GIZARTE-
EKINTZAK** egindako ekarpen ekonomikoaren osagarri den 1.500 euroko zenbatekoa.

PROFIL PROFESIONALA

**1.500 €-ko
laguntza
bekadunak
kontratatzeko
dituzten
enpresentzat**

BEKAREN IRAUPENA: 6 HILABETE

4

Bekadunentzako betekizunak

- **CAIXABAN**keko kontuko titularra izatea.
- 2013-2014ko ikasturtean edo 2014-2015ko ikasturtean **Deustuko Unibertsitatean** amaitutako graduko titulazioa edukitzea.
- **18 eta 30 urte artekoak** izatea.
- **Lanbiden** enplegu-eskatzaille moduan inskribatuta egotea.
- **Bizkaian** bizitzea.
- Unibertsitateko titulazio beragatik enpresetako **beste beka-programa batean parte hartu ez izana**, curriculumeko derrigorrezko praktiketan izan ezik.
- Unibertsitateko tituluaren arloan **aurretiazko inolako lan-harremanik eduki ez izana**.

5

Iraupena

**6 hilabete: 2015eko azaroaren 16tik
2016ko maiatzaren 13ra**

Hasiera batean, azaroaren, abenduaren eta urtarrilaren artean, beketako onuradunek prestakuntza teorikoa* egingo dute asteko 5 orduko zuzeneko jardunaldietan Deustuko Unibertsitatean, baita enpresa tutoretako asteko 25 orduko gehienezko prestakuntza praktikoa ere.

Hurrengo hilabeteetan, 30 orduko on line prestakuntza teorikoa egingo dute, baita praktikarekin lotutako 20 orduko programa-amaierako proiektua eta enpresa tutoretako asteko 30 orduko gehienezko prestakuntza praktikoa ere.

* Programan bertan, aldaketak egin ahal izango dira hizlarien prestasunaren arabera.

PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA

Bekaren zuzkidura

6

Kasuan kasuko atxikipena ezarri ondoren, **3.000 euro gordineko** zuzkidura ekonomikoa **7 hilekotan** banatuko da bekako alta-egun naturalen kopuruaren arabera. Bestetik, **CEBEKek** enpresari moduan ordainduko du bekadunaren izenean **CAIXABANKen** irekitako kontuan.

Hilero, CEBEKek indarreko araudiaren arabera ezarritako zenbatekoak atxikiko ditu (Gizarte Segurantzako Gertakizun Arruntetako 6,09 euroko kotizazioa eta %2ko PFEZ).

GASTUAK ETA JOAN-ETORRIETAKO DIETAK

Esleitutako enpresara joateko edo praktikako jarduera garatzeko beharrezkoak diren gastuak eta joan-etorrietako dietak enpresak berak konpentsatu ahal izango ditu enpresak arlo horretan ezarritako ohituren arabera.

Bekaren amaiera



Enpresako praktiketarako beka **honako arrazoi hauengatik amaituko da:**

- Arau hauetan zehaztutako **betebeharrak ez betetzea.**
- **Enpresak** tutore moduan dituen betebeharrak **ez betetzea** eta prestakuntzako bekaren helburua betetzeko aurretiaz zehaztutako zereginak/jarduerak ez esleitzea. Enpresak bere betebeharrak betetzen ez baditu, bekadunak CEBEKi jakinarazi beharko dio lehenbailehen.
- Bekaduna 3 egunetik gorako epealdian **inolako arrazoirik gabe ez bertaratzea**, ezta prestakuntzako ikastaroetan ere, praktika osoan zehar. Edonola ere, bekadunak betibeti justifikatu beharko du zergatik ez den bertaratzen. Zerbitzu medikoeak aitortutako aldi baterako ezintasunagatik bertaratzen ez bada, beka amaitutzat emango da 29 egunetik gorako epealdian bertaratzen ez denean.
- **Aldi baterako ezintasunagatik amaituz** gero, bekadunak lehentasuna izango du hurrengo beken programan beka berria esleitzeko orduan, betiere programaren %50 baino gehiago igaro ez bada eta esleipena egiteko orduan beharrezko gainerako betekizunak betetzen baditu.

PRODUCT

8

Bekak aurkezteko jardunaldia

IRAILAREN 15ean, ASTEARTEA

2014-2015 ikasturteko programan parte hartu zuten enpresen ordezkariekin.

- 2014-2015 programako bekadunekin. Diplomen banaketa.
- 2015-2016 programan izena eman duten eskatzaile berriak.
- "La Caixa" txostena. Gazte Enplegurako Plana



ESKABIDEAK

9

Bekadunen eskabideak

Bekadunek izena emateko epea: 2015eko irailaren 18ra arte.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Izena emateko orria: www.alumni.deusto.es

NANen fotokopia

Unibertsitateko tituluaren fotokopia

DARDE (Lanbideko alta-agiria)

Eskabideak bete eta e-postaz bidaliko dira DeustoAlumniko bulegora:

alumni.empleo@deusto.es

Bestela, ohiko postaz bidaliko dira: Erref. Euskadiko Gazteentzako Enplegu Programa

Deustuko Unibertsitatea - DeustoAlumni

Unibertsitate etorb. 24 - 48007 Bilbo

TELEFONOA: 94 413 93 51

10

Enpresen eskabideak eta epeak

Enpresek eskabideak egiteko epea: 2015eko irailaren 21etik urriaren 22ra.

Web honetan izena emateko eskuragarri dagoen orria bidali: www.cebek.es

e-postaz bidali helbide honetara: becascaixa@cebek.es

Bestela, ohiko postaz bidali: **Erref. Euskadiko Gazteentzako Enplegu Programa**

Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa

Kale Nagusia 50, 5. solairua - 48011 Bilbo

TELEFONOA: 94 400 28 00

***1.500 €-ko laguntza bekadunak kontratatzen dituzten enpresentzat:**

Praktikak amaitzean bekadunekin kontratua hitzartzen duten enpresen kasuan, Bizkaiko lehenengo 10ek eta Gipuzkoako lehenengo 12 kontratuek deialdi honetan xede horretarako aurrekontuan jasotako hobarria jasoko dute.